



Esp. kodea: 2016SAPL0001
Titularra: IDAZKARITZA

Gaia: PLENOA 2016/02/02
Hasiera data: 2016/01/25

Laburpena

Udal Plenoak, 2016ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki hauek hartu dituela informatzen dut:

1.- GIZARTE ONGIZATEKO BATZORDEKO LEHENDAKARITZARI ETA ESKUORDETZE ESPEZIFIKOAREN UKO EGITEAREN ETA IZENDAPEN BERRIAREN INGURUKO ALKATETZAREN EBAZPENAREN BERRI EMATEA (2015SKOR0001)

Alkatetzako ebazpenaren berri eman da, non, Amaia Azpiazu Aramburu andrearengan eskuordetu den Gizarte Ongizate batzordeko lehendakaritza eta arlo honi dagokion eskumen delegazio espezifikoa, Igor Urizar Murgoitio jaunak hauei uko egin ostean-

2.- PROPOSAMENA UDALBATZAREN OSOKO BILKURARI DESJABETZEKO ESPEDIENTE BAT HASI DEZAN, BEHAR DIREN ONDASUNAK ESKURATU DITZAN “ZARUGALDE KALEA 37AN DAGOEN ERAIKINA ERAITSI ETA INGURUA EGOKITZEKO OINARRIZKO PROIEKTUA” EXEKUTATZEKO. (2015HDJA0003)

Udalbatzak erabaki du hastea nahitaez desjabetzeko espedientea, “*Zarugalde kalea 37an dagoen eraikina eraitsi eta ingurua egokitzeko oinarritzko proiektua*” exekutatzeko behar diren ondasunak eta eskubideak eskuratzeko.

Halaber, deklaratzat jotzen da ondasunak okupatu behar izatea, geroago aipatuko direnak, lehen esandako helburuetarako eta baita ere, zehatz eta banaka adieraztea zer ondasun desjabetu behar diren; horien deskribapen xehatua, bai eta horien titularrenak ere.

3.- DESJABETZEKO ESPEDIENTEA D ATALEKO (AUZOKO GARBITOKIA ETA ITURRIA EGOKITZEA) LANAK EGITEKO BEHAR DIREN ONDASUNAK ESKURATZEKO, UDALA-BESAIDE BIDEAREN ETA HAREN INGURUAREN NATURA ETA KULTURA BALIABIDEAK ERREKUPERATU ETA HOBETZEKO TESTU BATEGINAREN OBREI DAGOKIENEZ: AURKEZTU DIREN ALEGAZIOAK. (2015HDJA0002)

Udalbatzak erabaki du erantzutea L. M. A jaunak egin dituen alegazioei eta behin betiko onartzea desjabetzeak eragindako ondasunen eta eskubideen zerrenda, “*Udala-Besaide bidearene ta haren inguruaren natura eta kultura baliaabideak errekuperatu eta hobetzeko testu bategina*”ren D fasean (auzoan garbitokia eta iturria egokitzea) datorren jarduna exekutatzeko. Baita ere, adieraztea zerrenda horretako ondasunen eta eskubideen titularrei HAMABOST EGUNeko epe batean (akordioa jakinarazten den egunetik aurrera) prezio bat proposatu dezaten, elkarrekin ados jarrita erosteko, indarrean dagoen legerian ezarrita dauden balorazio irizpideak erabilita.